

Juliana Eizagirre Osa

*Getaria,
Gipuzkoa
(1929)*

Aurkibidea

Biografia



Askizuko Iturregi baserrian jaio zen, hamaika senideren artean hamargarren. Baserriko lanak egiten umetatik ohituta, hamazazpi urte zituela neskame joan zen Getariako etxe batera lehenengo, eta Donostiara geroago. Hogeitazpi urte zituela ezkondu zen Getariako Joxe Mari Mendizabalekin, eta bost seme-alaba izan zituzten elkarrekin.

Zintak

GET-026

- **Proiektua:** Euskal Herriko Ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxeberria, Eider
- **Data:** 2010-08-13
- **Iraupena:** 51 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Etxeberria, Eider

GET-027

- **Proiektua:** Euskal Herriko Ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxeberria, Eider
- **Data:** 2010-08-13
- **Iraupena:** 72 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Etxeberria, Eider

Pasarteak

1. Gabonetan denak etxean janari berezia jaten

- **Erref:** GET-026/004
- **Iraupena:** 0:01:04. **Hasi:** 00:02:07. **Bukatu:** 00:03:11
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Eliza giroko ospakizunak
- Baserrria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua

Laburpena:

Gabonetan turroia eta beste hainbat jaki berezi jaten zituzten. Lurreko sua zeukaten etxean, eta aitzak ahia egiten zuen bertan urtero. Gabonetan familia guztia elkartzen zen.

2. Santa Ageda bezperan koplariak baserrira iristeko irrikitan

- **Erref:** GET-026/007
- **Iraupena:** 0:01:30. **Hasi:** 00:03:51. **Bukatu:** 00:05:21
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Bertsoak
- Aisia » Jai-giroa » Santa Ageda

Laburpena:

<p>Santa Ageda bezperan gizon kuadrilla baserriz baserri ibiltzen zen, soinuak lagunduta, koplak kantatzen. Baserrian desiratzen egoten ziren haiek noiz etorriko. Santa Agedako kantaren doinua abesten du.</p>

3. Gabonetako inozentzia joan zenekoa

- **Erref:** GET-026/008
- **Iraupena:** 0:01:18. **Hasi:** 00:05:21. **Bukatu:** 00:06:39
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Eliza giroko ospakizunak
- Baserrria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua

Laburpena:

Gabonetan familia dena elkartzen zen. Afaldu, jokoan egin eta lotara joaten ziren. Gabonetan zer opari jasotzen zituzten aipatzen du. Opariak amak jartzen zituela jakin zutenean, ez zuten opari gehiago jaso.

4. Zikloiak eragindako ezbeharrak

- **Erref:** GET-026/010
- **Iraupena:** 0:01:24. **Hasi:** 00:07:25. **Bukatu:** 00:08:49
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Natura » Meteorologia
- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Gertaera izugarriak eta ezbeharrak

Laburpena:

<p>Xanti, bere anaia gazteena, itsasoan galdu zen 16 urte zituela, zikloi bat izan zenean. Lehen ez zegoen jakiterik zikloia zetorrela. Horrelako istripu gehiago egon ziren hurrengo urteetan.</p>

5. Txerria susara zegoenean, Zarautzera

- **Erref:** GET-026/013
- **Iraupena:** 0:02:00. **Hasi:** 00:10:56. **Bukatu:** 00:12:56
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren eragina
- Baserrria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
- Baserrria » Baserriko lanak

Laburpena:

Baserrian denetariko lanak egiten zituen. Gerrara joateko, binaka eramaten zituzten anaiak. Txerri emea ugaltzeko, txerri arrarengana eramaten zuten Zarautzera. Txerria susara zegoenean eramaten zuten hara.

6. Baserriko lanetan murgilduta, eskolara joateko denbora gutxi

- **Erref:** GET-026/014
- **Iraupena:** 0:01:30. **Hasi:** 00:12:56. **Bukatu:** 00:14:26
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak
- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua

Laburpena:

Baserrian denetariko lanak egiten zituen, eta ez zuen eskolara joateko denborarik izaten. Eskolan maistra bat zuten, eta Askizuko umeak joaten ziren hara.

7. Eskolara joateko denborarik ez

- **Erref:** GET-026/016
- **Iraupena:** 0:01:12. **Hasi:** 00:15:15. **Bukatu:** 00:16:27
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Sakramentuak

Laburpena:

<p>Komunioa Zumaian egin zuen. Eskolatik irtetea etxerako egurra biltzen zuten, eskolarako ikasi beharrean. Komunioa egindakoan utzi zion eskolara joateari.</p>

8. Mezetara goizean goiz txandaka eta lasta-suziria eskuan

- **Erref:** GET-026/017
- **Iraupena:** 0:01:26. **Hasi:** 00:16:27. **Bukatu:** 00:17:53
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizkizunak eta otoitzak
- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua

Laburpena:

Igandero joaten ziren mezetara, eta hara joateko anai-arreben artean txandak egiten zituzten. Mezetara goizean goiz joateko, lasta-suziria erabiltzen zuten.

9. Errekara zinka buruan zutela garbiketak egitera

- **Erref:** GET-026/019
- **Iraupena:** 0:01:30. **Hasi:** 00:18:17. **Bukatu:** 00:19:47
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa garbitzea
- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Garbitasun pertsonala

Laburpena:

Baserrian emakumeek egiten zuten etxeko garbiketa. Errekara joaten ziren zinka buruan zutela arropa garbitzera. Garbiketa nola egiten zuten azaltzen du.

10. Suak gehiago irauteko, zerrautsa jartzea

- **Erref:** GET-026/020
- **Iraupena:** 0:01:21. **Hasi:** 00:19:47. **Bukatu:** 00:21:08
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Mendiaren aprobetxamendua
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak
- Baserria » Baserriko lanak » Artoa

Laburpena:

<p>Ekonomika erabiltzean, zerrautsa jartzen zuten egurraren gainean suak gehiago iraun zezan. Egur bila mendira joaten ziren eta beraiek moztzen zuten. Artoa ere zuritzen zuten.</p>

11. Lotarako prestaketak: koltxoia eta ur beroa

- **Erref:** GET-026/021
- **Iraupena:** 0:02:46. **Hasi:** 00:21:08. **Bukatu:** 00:23:54
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua

Laburpena:

Lotarako binaka egoten ziren logela bakoitzean. Koltxoiak malutazkoak edo artilezkoak izaten ziren. Hura egunero astintzen zuten harrotzeko. Urtean behin koltxoi barrukoa atera eta garbitu eta astindu egiten zuten. Ohea berotzeko buztinezko botilak ur beroarekin bete eta hanka parean jartzen zituzten.

12. Lotarako garaian, neskameari egindako gaiztakeriak

- **Erref:** GET-026/023
- **Iraupena:** 0:04:42. **Hasi:** 00:24:33. **Bukatu:** 00:29:15
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak

Laburpena:

Etxean neskamea bizi zen beraiekin. Hura koltxoian baldar etzaten zen, nahiz eta polikiago etzateko esaten zioten besteek. Halako batean, Julianak otea jarri zion koltxoian, eskarmentu gisa. Beste batean, sagu txiki bat harrapatu, eta maindire artean jarri zion.

13. Artzainari egindako gaiztakeria

- **Erref:** GET-026/024
- **Iraupena:** 0:02:35. **Hasi:** 00:29:15. **Bukatu:** 00:31:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Umetako kontuak

Laburpena:

Etxean artzaina zuten. Behin, sukaldean gazta egiten ari zirela, ekonomikan bero-bero zegoen kakoa artzainari jarri zion besoa. Errieta egin zioten horregatik, baina zigorrik inoiz ez.

14. Tximista etxera sartu zitzaienekoa

- **Erref:** GET-026/026
- **Iraupena:** 0:05:16. **Hasi:** 00:33:34. **Bukatu:** 00:38:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Gertaera izugarriak eta ezbeharrak
- Natura » Meteorologia

Laburpena:

Tximista hirutan sartu zitzaien etxera: batean, anaia eta ama jo zituen; bestean, etxea zeharkatu, ganadua hil, eta etxeko senide batzuk konorterik gabe utzi zituen. Azken aldi horretan, Ermandadekoen artean banatu zuten ganadua.

15. Tximistorratza etxean jarri zutenekoa

- **Erref:** GET-026/027
- **Iraupena:** 0:02:09. **Hasi:** 00:38:50. **Bukatu:** 00:40:59
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Natura » Meteorologia
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Eraikuntzak eta azpiegiturak

Laburpena:

Tximista etxean sartzen zitzaenez, tximistorratza jarri zuten, eta tximistorratzarentzako lekua nola prestatu zuten azaltzen du.

16. Gerrako zauriak eta gurasoen heriotza

- **Erref:** GET-026/029
- **Iraupena:** 0:02:38. **Hasi:** 00:41:55. **Bukatu:** 00:44:33
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:

Oso gazte zela hil zitzaizkion gurasoak. Gerra iritsi zenean, bi anaia joan ziren frontera. Anaia bat zauritu egin zuten eta ibili ezinik egon zen. Azkenean, lortu zuen etxera itzultzea. Beste anaia hil egin zuten gerran. Gizonak gerrarako nola deitzen zituzten azaltzen du. Batzuek ihes egiten zuten gerrara ez joatearren.

17. Gerran eta gerraostean janariarekin nola moldatu ziren

- **Erref:** GET-026/031
- **Iraupena:** 0:01:56. **Hasi:** 00:45:04. **Bukatu:** 00:47:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa
- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean

Laburpena:

<p>Gerran ondo moldatu ziren jateko. Etxean egiten zuten ogia, astean behin, labesuan. Gerra ostean, errotak itxita zeuden, eta ogia egiteko nola moldatzen ziren azaltzen du. Taloa ere egiten zuten etxean.</p>

18. Gerrako giroa Getarian

- **Erref:** GET-026/032
- **Iraupena:** 0:02:14. **Hasi:** 00:47:00. **Bukatu:** 00:49:14
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa

Laburpena:

<p>Gerran ez zuten bonbarik ezagutu, baina Getariako kanposantuan gizon bat hil zutenekoa gogoratzen du. Gerran ezin zituzten milarraiazko galtzak erabili, eta ezkutatu egin behar izaten zituzten. Cara al Sol abestera behartzen zituzten.</p>

19. Etxean kalean baino ogi hobea

- **Erref:** GET-026/033
- **Iraupena:** 0:01:31. **Hasi:** 00:49:14. **Bukatu:** 00:50:45
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Garia
- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean

Laburpena:

<p>Garia ez zuten entregatu behar izan gerraostean. Kalean egiten zuten ogia ez zuten eramaten etxera, hobea egiten baitzuten etxean. Etxean ehotzeko makina zeukaten eta hari buruz hitz egiten du.</p>

20. Errotara astoa eta bera

- **Erref:** GET-027/002

- **Iraupena:** 0:03:11. **Hasi:** 00:00:05. **Bukatu:** 00:03:16
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
- Baserria » Baserriko lanak » Errota
- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak

Laburpena:

<p>Gerraostean errotak itxita egon ziren eta Juliana ezkutuan joaten zen inguruko zenbait errotatara. Haietara joateko, hala ere, bide luzea egin behar izaten zuen eta beldurrez joaten zen, astoari karga eroriko zitzaiolakoan. Astean bitan ere joaten zen errotara.</p>

21. Erromeriatik etxera mutilengandik ihesi

- **Erref:** GET-027/003
- **Iraupena:** 0:01:01. **Hasi:** 00:03:16. **Bukatu:** 00:04:17
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ligatzea
- Aisia » Jai-giroa » Erromeriak

Laburpena:

Behin 15-16 urtez gero, Oikiako erromeriara joaten ziren. Erromerian dantza egiten zuten eta iluntzerako etxera. Atzetik zetozkien mutilak gustuko ez bazituzten, ihes egiten zuten.

22. Gaztetako mutil-laguna

- **Erref:** GET-027/005
- **Iraupena:** 0:01:00. **Hasi:** 00:04:25. **Bukatu:** 00:05:25
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ligatzea

Laburpena:

Oikiako mutil batekin ibili zen denbora batez eta errotara joaten zenean ikusten zuten elkar. Erromerian ezagutu zuten elkar eta urte pare bat egon ziren elkarrekin.

23. Plaza txikietan poz handiarekin

- **Erref:** GET-027/006
- **Iraupena:** 0:02:27. **Hasi:** 00:05:25. **Bukatu:** 00:07:52
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Erromeriak
- Aisia » Jai-giroa » Beste toki batzuetara jaietara

Laburpena:

Erromerian dantza soltea dantzatzen zuten. Gaur egun orduko plaza ikusita, oso txikia iruditzen zaio. Meagara gutxi joaten ziren, baina inguruko beste hainbat festatara joaten ziren. Erromerietako giroa nolakoa izaten zen azaltzen du.

24. Dantzarako gogoa eta anaia soinu-jotzailea

- **Erref:** GET-027/007
- **Iraupena:** 0:01:51. **Hasi:** 00:07:52. **Bukatu:** 00:09:43
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Kongregazioak
- Aisia » Jai-giroa » Erromeriak

Laburpena:

<p>Dantza lotua egitea leku batzuetan debekatuta zegoen, eta neskak dantza lotuan harrapatuz gero, kongregaziotik bidaltzen zituzten. Berari beti gustatu izan zaio dantza egitea. Etxean ikasi zuen dantzan, anaiak soinua jotzen baitzuen.</p>

25. Erromeriarako apaintzen

- **Erref:** GET-027/009
- **Iraupena:** 0:00:48. **Hasi:** 00:09:57. **Bukatu:** 00:10:45
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Erromeriak
- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak

Laburpena:

Erromerian geratu gabe egiten zuten dantza, eta abarkak bizarrez josita zituztela bueltatzen ziren etxera. Soinekoa eramaten zuten, eta pinturarik gabe "makillatzen" saiatzen ziren.

26. Estetika ondo zaintzen

- **Erref:** GET-027/011
- **Iraupena:** 0:01:57. **Hasi:** 00:10:59. **Bukatu:** 00:12:56
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak
- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Orrazkerak

Laburpena:

Ilean zer-nolako orrazkera izaten zuen azaltzen du. Beti gustatu izan zaio apaintzea, baita arropa aukeratzea ere.

27. Hondartzara gutxi, baserrian nahikoa eguzki hartzen

- **Erref:** GET-027/012
- **Iraupena:** 0:01:41. **Hasi:** 00:12:56. **Bukatu:** 00:14:37

- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak
- Aisia » Mendia eta hondartza » Hondartza

Laburpena:

Normalean ez ziren hondartzara joaten. Behin neguan lapa bila joan ziren, busti egin zen eta ez zuen gehiago hondartzara joan nahi izan. Eguzkia baserrian lanean zebiltzala hartzen zuten. Julianari lastozko txapela erabiltzea gustatzen zitzaion eguzkitik babesteko.

28. Auzolanak eta norbere garbitasuna

- **Erref:** GET-027/016
- **Iraupena:** 0:02:33. **Hasi:** 00:15:58. **Bukatu:** 00:18:31
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Garbitasun pertsonala

Laburpena:

Auzolanak egiten zituzten garitarako eta bideak egiteko. Auzolanaren egunean, jaten ematen zitzaion jendeari, eta garbitzeko zinka bete ur jartzen zitzaion. Garai hartan dutxatu ostean nola lehortzen eta apaintzen ziren azaltzen du.

29. Orduko estetika eta lutoaren indarra

- **Erref:** GET-027/017
- **Iraupena:** 0:04:29. **Hasi:** 00:18:31. **Bukatu:** 00:23:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak
- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Orrazkerak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren jarrera

Laburpena:

Ilea orrazteko ile-apaindegira joaten ziren, Mari Pazengana. Gehienbat permanentea egiten zuten lehen. Ezkondutakoan, mototsa eramaten zuten emakumeek. Lutoa zenbat denbora eraman behar izaten zen aipatzen du. 14-15 urtera arte lutoa bakarrik ezagutu zuen Julianak. Arropak lutorako nola moldatzen zituzten azaltzen du. "Medio luto" ere eramaten zen. Lehen oso gaizki ikusia zegoen kolorezko arropa janzteak alargunek. Luto garaian, elizan kandelak piztu behar izaten zituzten.

30. Hileta ostean, bazkaria eta lutoa

- **Erref:** GET-027/019
- **Iraupena:** 0:02:26. **Hasi:** 00:23:18. **Bukatu:** 00:25:44
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Auzokoen arteko harremana
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Hiletak

Laburpena:

Luto garaian musika entzutea bazegoen, baina dantzarik ezin zen egin. Denak begira egoten ziren eta etxean ere debekatu egiten zieten. Azkenean, 16 urteren ostean, Juliana aspertu egin zen lutoaz. Hileta zenean, etxean bazkaria ematen zitzaien auzokoei eta jendea mozkortuta irteten zen handik.

31. Gurasoen heriotza

- **Erref:** GET-027/021
- **Iraupena:** 0:03:06. **Hasi:** 00:26:18. **Bukatu:** 00:29:24
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Gaixotasunak
- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Medikuak eta sasimedikuak

Laburpena:

Aita hil eta handik 4 urtera ama hil zen buruko atakeak emanda. Hilabete egon zen ohean atakeak eman zionetik, eta etxean nola zaintzen zuten azaltzen du.

32. Kanpai abeslariak

- **Erref:** GET-027/023
- **Iraupena:** 0:01:04. **Hasi:** 00:34:43. **Bukatu:** 00:35:47
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Kanpaiak
- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ezkontzak

Laburpena:

Hasiera batean Lezon ezkontzeko asmoa zeukaten. Edade batetik aurrera, jende asko joaten zen kanpora ezkontzera. Lezoko eta Errenteriako kanpaien kanta abesten du.

33. Erromerien inguruko tabernak

- **Erref:** GET-027/025
- **Iraupena:** 0:01:10. **Hasi:** 00:35:55. **Bukatu:** 00:37:05
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Erromeriak
- Aisia » Taberna giroa

Laburpena:

Erromerien inguruan tabernak egoten ziren. Neskak sartzen ziren tabernetan, baina gutxi. Egarria izanez gero, iturrira joaten ziren tabernara joan baino lehenago.

34. Erromeriatik neska-laguntzerainoko pausoak

- **Erref:** GET-027/026
- **Iraupena:** 0:02:38. **Hasi:** 00:37:05. **Bukatu:** 00:39:43
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ligatzea
- Aisia » Jai-giroa » Erromeriak

Laburpena:

Dantza lotua egiteko, mutilak neskari "faborez" eskatzen zion. Mutilek hitz eginda edukitzen zuten beren artean zer neskarekin nahi zuten dantza egin. Baina ez zitzaien gustatzen neskek kalabazak ematen zizkietenean. Behin anaiari kalabazak eman zizkioten, eta orduan egin zuena kontatzen du. Erromeria bukatutakoan, mutilak nesken zain egoten ziren; neskak ez ziren mutilen atzetik joaten. Kotxea izatea arrunt bihurtu zenean, neska-laguntzea asko galdu zen.

35. Gustuko mutilak

- **Erref:** GET-027/027
- **Iraupena:** 0:01:18. **Hasi:** 00:39:43. **Bukatu:** 00:41:01
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ligatzea
- Aisia » Jai-giroa » Erromeriak

Laburpena:

Mutil jatorrak eta ederrak gustatzen zitzaizkien gaztetan. Hizketan antzematen zitzaien mutilei nolakoak ziren. Erromeriara ahizparekin eta baserri inguruko lagunekin joaten zen Juliana.

36. "Etxekoandrea neskame izan bada..."

- **Erref:** GET-027/032
- **Iraupena:** 0:02:50. **Hasi:** 00:47:40. **Bukatu:** 00:50:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak
- Lanbideak » Neskameak
- Lanbideak » Sastreak, jostunak

Laburpena:

"Etxekoandrea neskame izan bada, ez egin lan haren etxean". Juliana neskame zenean diru eta arropa gutxi zeukan. Behin etxekoandreak abrigo bat egin behar zuela eta hartarako dirua aurreratuko ziola esan zion; azkenean Julianak dena ordaindu arte ez zuen soldatarik jaso.

37. Donostian abrigoa birziklatu

- **Erref:** GET-027/034

- **Iraupena:** 0:01:17. **Hasi:** 00:50:51. **Bukatu:** 00:52:08
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak
- Lanbideak » Neskameak
- Lanbideak » Sastreak, jostunak

Laburpena:

Etxekoandreaki soldata igotzeko eskatu zion, eta ez zion eman. Horregatik, Donostiara joan zen lanera. Hara iritsi zenean, abrigoa kolorgetuta zegoen, eta etxekoandreak abrigoari buelta eman, berriro josi, eta abrigo "berria" egin zion.

38. Etxekoandreen erreferentziak

- **Erref:** GET-027/035
- **Iraupena:** 0:02:55. **Hasi:** 00:52:08. **Bukatu:** 00:55:03
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Jaiotzak
- Lanbideak » Neskameak

Laburpena:

Ahizpak umea izan zuenean, arazoak izan zituen, eta hari laguntzera joan zen Juliana Lasartera. Donostiako etxekoandrea penatan gelditu zen. Geroago beste etxe batera joan zen lanera.

39. Kroketa "naturalak"

- **Erref:** GET-027/038
- **Iraupena:** 0:01:54. **Hasi:** 00:56:03. **Bukatu:** 00:57:57
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa
- Lanbideak » Neskameak

Laburpena:

Donostian neskame zegoela, behin kroketen masa erori zitzaion lorategira. Janaria eta olioaren soberan ez zegoenez, dena bildu eta huraxe prestatu zuen bazkaritarako. Ez zen inor konturatu.

40. Otorduetako menua

- **Erref:** GET-027/039
- **Iraupena:** 0:01:11. **Hasi:** 00:57:57. **Bukatu:** 00:59:08
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa
- Lanbideak » Neskameak

Laburpena:

Neskame zegoela, zer otordu prestatzen zituzten azaltzen du. Izoziak jateko komeriak izaten zituen.

41. Argindarrarekin tranpetan

- **Erref:** GET-027/041
- **Iraupena:** 0:01:15. **Hasi:** 01:00:26. **Bukatu:** 01:01:41
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Argindarra eta ura
- Lanbideak » Neskameak

Laburpena:

Donostiako nagusiak tranpa egiten zuen argindarraren kontadoreak ez markatzeko zenbat gastatzen zuten. Argizalea etortzerako, ordea, prest egoten zen bere burua zuritu eta neskameari errua botatzeko.

42. Neskame zegoeneko bizimodua

- **Erref:** GET-027/042
- **Iraupena:** 0:01:13. **Hasi:** 01:01:41. **Bukatu:** 01:02:54
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Neskameak

Laburpena:

Neskame zegoeneko bizimodua nolakoa izaten zen azaltzen du. Behin etxeko obra egin zuten nagusiek, eta neskamearen logela txikitu zuten komuna handitzeko.

43. Garbiketak egiteko buruhaustea

- **Erref:** GET-027/043
- **Iraupena:** 0:02:46. **Hasi:** 01:02:54. **Bukatu:** 01:05:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Garbitasun pertsonala
- Lanbideak » Neskameak

Laburpena:

Goizero etxeko garbiketa egiten zuen. Astero pasatzen zuen alanbrea lurrean, argizaria eman eta trapua pasa. Etxekoandreak egunero begiratzen zuen ea ondo garbituta zegoen. Hautsa kentzeko nola moldatzen zen kontatzen du.

44. Kontu handiarekin garbitzen

- **Erref:** GET-027/045
- **Iraupena:** 0:01:21. **Hasi:** 01:05:49. **Bukatu:** 01:07:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Garbitasun pertsonala
- Lanbideak » Neskameak

Laburpena:

Etxea garbitzeko, ondo aztertzen zuen altzarien antolaketa eta gauzak non zeuden jarrita.

45. Platera puskatu izanaren ardura

- **Erref:** GET-027/046
- **Iraupena:** 0:01:38. **Hasi:** 01:07:10. **Bukatu:** 01:08:48
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Garbitasun pertsonala
- Lanbideak » Neskameak

Laburpena:

Neskame zegoela, behin etxekoandreak plater bat puskatu zuen. Nagusiak plater haren hondarrak ikusi zituenean, etxekoandreari galdetu zion zer gertatu zen eta hark bere gain hartu zuen ardura.

46. Ohe azpiko trikimailua

- **Erref:** GET-027/047
- **Iraupena:** 0:01:02. **Hasi:** 01:08:48. **Bukatu:** 01:09:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Garbitasun pertsonala
- Lanbideak » Neskameak

Laburpena:

Neskameek ohe azpia garbitzen zuten ala ez jakiteko, etxekoandreek dirua jartzen zuten ohe azpian. Julianak txikitatik izan zuen trikimailu horren berri.

47. Señorita artean garbiketa lurrean egiten

- **Erref:** GET-027/049
- **Iraupena:** 0:01:28. **Hasi:** 01:10:08. **Bukatu:** 01:11:36
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Garbitasun pertsonala
- Lanbideak » Neskameak

Laburpena:

Neskame zegoela, astean behin garbiketa belauniko egin behar izaten zuen. Horrek mina ematen zionez, beste era batera moldatu ziren. Etxe hartan bi alaba zeuzkaten, eta alaba zaharrenak "señorita" deitzeko eskatzen zuen.

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkarte

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com